

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Ondasun higiezinaren gaineko eta ondasun higiezin berezien gaineko 2021eko zerga borondatez ordaintzeko aldia

Javier Gallego Rodríguez Erriberagoitiko Udaleko alkate-lehendakariak:

Jakinarazten du:

Ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ondasun higiezin berezien gaineko 2021eko zerga ordaintzeko moduan daudela.

Borondatezko epea: 2021eko azaroaren 10etik 2022ko urtarrilaren 10era.

Borondatezko epea bukatutakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko errekarguarekin kobratuko dira, bat etorritik Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoarekin.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banketxe edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela ordainketa, udal bulegoetan hala eskatuta.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin behar, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik egon bada, Erriberagoitiko Udalarik horren berri eman behar zaio; baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, aurrerantzean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2021eko urriaren 28a

Alkatea

JAVIER GALLEGO RODRÍGUEZ